

# ILUSIONISMO SOZIALA.

Javier Encina eta M<sup>a</sup> Ángeles Ávila. UNILCO-espacio nómada.  
unilco@unilco.org.es/www.unilco.org.es (tlf. 649 31 64 03)

Gure herrian edo auzoan lan egiteko moduak, labur esanda, hiru dira:

- Aurrenekoa: ordaintzen digunaren alde eta harentzat lan egitea, edo gure elkarte edo partiduaren alde eta harentzat lan egitea. Ez diogu ezer galdetu behar geure buruari, ez daukagu beste inorekin lan egin beharrik; agintzen digutena egin behar dugu edo jarri dizkiguten helburuak bete.
- Bigarrena: jendearen alde eta jendearentzat lan egitea. Ez dugu inorekin lan egin behar, baizik eta jakin zer behar duen jendeak eta hura eman.
- Hirugarrena: jendearekin eta jendetik lan egitea. Jendearekin lan egin behar dugu bere eguneroko bizitzako protagonista izan dadin, eta hortik abiatuta eraikitzen joan dadila nolako auzoa, herria... nahi duen.

Leku desberdinetan bizitzen garenean, ohartzen gara gure jokatzeko erak ere desberdinak direla. Zergatik?

Pentsatu eta ohartuko gara leku batzuetan markatuta, ezarrita ditugula ordutegi batzuk eta erabilera bakar bat: enpresa, ikastetxea, etxe batera bisitan joaten garenean, merkataritza zentroak... Leku horiek *lurralde* dira: jabea dute (erabilera markatzen duena) eta *ordutegia* (ezin ditugu erabili nahi ditugunean). Horrelako lekuek pobretu egiten dituzte gure harremanak, harreman horiek kontsumo eta/edo ikuskizun bihurtzen dira; horrelako zenbat eta leku gehiago (eta espazio publiko asko halakoxe bihurtzen ari dira), orduan eta pobreagoak eta finalistagoak izango dira gure harremanak.

Beste leku batzuek, berriz, erabilera asko dituzte, talde bakoitzak bere erabilera duelako edo talde batek gauza bat baino gehiago egiten dituelako; hauei *espazio* deitzen diegu, eta fijatzen jarraitzen badugu, ikusiko dugu jarduerak ez datozela orduak markatuta, mugatuta, baizik eta egunean edo gauean zehar sartu-irten gaitzkeela; honi

*denbora* deitzen diogu. Hemen, erlazionatzeko moduak dira garrantzitsu: saiatzen gara *ordutegiak denbora* bihurtzen eta *lurraldeak espazio*. Pertsona bezala hazi nahi dugu besteekin ditugun harremanen bidez, besteekin egoten ahalegintzen gara, hau da, batzuk besteekin topo eginez, beste batzuk beste batzuekin, denok denekin nahasteko formula posible guztiak lortu arte, eta, horrela, beharrei erantzuten diegu gure bizitzak hobera aldatuz.

Estatuari eta merkatuari, erabateko kontrola izateko eta ahal den irabazi handiena lortzeko, ahalik eta ordutegi eta lurralde gehien interesatzen zaizkie. Haien estrategia da edukiak izan daitezela interesgune: izatea, mugiezina dena, ezinezkoa dena...

Zeri deitzen diogu **ilusionismo soziala**? *Egiteko modu bat* da, dimentsio dialektikoan oinarritzen dena, abiapuntu ditu parte hartzeko metodologiak (batik bat IAP: Ikerketa-Ekintza Partehartzailea) eta garatzen da herri kulturekin lan eginda. Ardatz nagusi du *eguneroko espazio eta denboretan bitartekaritza sozialak sortzea eta dinamizatzea*; horretarako, jendearekin eta jendetik egin behar da lan, posible denaren segurtasunetik ezinezkoa denaren itxaropenerantz mugituta, eguneroko bizitza autogestionatuta, desberdindu ezin direlarik pentsatzea eta sentitzea, ekintza eta ezagutza, jakintza guztien errekonozimendua eta ikaskuntza.